

BERMEO.-“Kontserbekin lotutako museo bat egitea aztertzen ari dira”

Ormaza lantegia zegoen eraikinean kontserben sektorera bideratutako museo bat egiteko aukera aztertzen ari da Bermeoko Udala, interpretazio zentro bat, hain zuzen, Bego Gangoiti Turismo Bulegoko teknikariak baieztatu duenez.

Haren arabera, ordea, asmoa aspaldikoa bada ere, kontuan hartuta Udalak eraikin hori 2004an erosi zuela, oraingoz eman den aurrerapausoa da Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza batzuetara proiektu bat aurkeztu dutela leku horrek zelako aukera turistikoak dauzkan ikertzeko azterketa bat egin ahal izateko, azaldu du Gangoitik.

Diru laguntza eskaera bat baino ez da izan, oraingoz ez dago esleipenik eginda, gaineratu du. Aurrekontuetan ere ezer ez dutela sartu azaldu du.

Udalak Ormaza lantegiaren eraikina erosi zuenean baldintzetako bat izan zen kultura alorreko zerbitzu bat eman behar zuela, azaldu du Gangoitik.

Kontserbei buruzko interpretazio zentro bat edo antzeko zerbait egiteko aukera planteatu zutela ekarri du gogora Turismo Bulegoko teknikariak. Turismoari buruzko 2008ko azken datuek erakutsi dutenaren arabera, jende aldetik turismoa mantendu egin da; ordaindu beharreko museoetan edo jardueretan, ordea, kopuruak behera egin du. Hori dela eta, museo horren bideragarritasunari dagokionez, Gangoitik azaldu duenez, oraingoz ez dago eginda sarrera ordaindu egin beharko litzatekeen edo ez erabakitzeko planteamendua.

Baliteke museo bera bakarrik planteatzea edo beste zerbaiten osagarri bezala... Horregatik eskatu da diru laguntza bat ikerketa bat egiteko, guzti hori baloratzeko, esan du.

Ikerketak esango du museak zer erakutsiko duen

Ormaza lantegian egingo litzatekeen museoak zer hartuko lukeen ere aztertu egin beharko litzatekeela azaldu du Gangoitik. Hala ere, haren arabera, lantegia bera kontserben lantegi bat izan da eta era horretako eraikin batean interpretazio zentro bat egiten denean normalena da eraikin horretan egiten zen lana bera erakustea.

Bermeon, gainera, kontserben munduak oso garrantzia handia dauka. Mundu horretara zuzendutakoa izango dela argi dago, baina zelan bideratuko den interpretazio zentro hori ikerketak berak esango du, azaldu du Gangoitik.

Proiektu hori epe luzera begirakoa dela adierazi du. Aurten egiteko proiektua ez da, inolaz ere, adierazi du, eta datorren urterako ere ikusi

beharko litzateke aurrekontuak eta bestelakoak zertan dauden, gaineratuta.
Eskaintza turistikoa

Diru laguntza horregaz Udalak egin gura duen azterketaren bidez Bermeok bere eskaintza turistikoa aldatu behar izatekotan zelan egin behar duen, norantz bideratu behar den ikusi eta era horretako alorrak jorratuko dituzte. Horrez gain, Gangoitik azaldu duenez, baliabide turistikook sortzen direnean ibilbide baten barruan sartzeko helburuagaz egiten da. Azken batean, Bermeon ditugun baliabideekin, normalena izango litzateke arrainaren eta itsasoaren munduko kontuetan espezializatzea.

Horren harira, Arrantzaleen Museoa, portua bera eta Aita Guria baleontzia ditugu, beraz, guzti horiek lotzea izango litzateke logikoena, gaineratu du Turismo Bulegoko teknikariak.
850 metro koadro ditu Ormaza lantegiaren eraikinak eta Askatasun Bidean kokatuta dago.

Natalia Salazar